

«FRANTZISKO GAINZA, GAINXURIZKETAKO SEME HAUNDIA»

Askotan ondo menperatzen dugu kanponko historia, edo mundu edota Europa mailan gertatutakoak, gure herriko historia apal eta xume ahaztukeriaren kaxan sartuz, eta horixe da Bidasoa-Oiartso aldean bizi garenoi gertatzen zaiguna. Azken urte hauetan zerbait aurreratu dugu eta gaur egun behintzat ezagunagoa egiten zaigu Euskal Herriko historia, baina egia esateko oso lerro haunditan, eta noski lerro haundi horietan bailaretako edo herrietako historia eta gertakizunek ezer gutxi balio due.

Baina benetako euskal historia bere sakontasun osoan ezagutu nahi badugu, gure nortasunaren ezaugarriak bere errealitate berezkoan ezagutu nahi badiugu, hasi beharko dugu gure herrietako, bure bailaretako gertaerak eta zehazkizun historikoak aztertzen, bestela jai dugu. Ezin bait dezakegu ezagupen oso eta jator batera iritsi oinarriak, zainak,... ahaztuz, baztertuz,... Eta agian gaur egun miniskuluetan oraindik idazten den historia lokalista horren barruan badaude gai eta pertsonaia asko eta asko oraindik beren birjintasun osoan, ikutu gabe daudenak. Hauetako bat Frantzisko Gaintza dugu, Lezoko baserri batetan jaioa eta urteen poderioz Irungo eskribau eta erretorea izandakoa. Duela urte gutxi, Irungo Udalak, honen «Historia de la Universidad de Irun-Uranzu» izeneko liburua berrargitaratzeko hartu duen erabakia guztiz txalogarria iruditzen zaidanez, nire zoriontasun beroena agertu nahi diot lerro labur hauen bitartez.

1.- FRANTZISKO GAINZA, PERTSONAIA EZTABAIDAGARRIA

Aintzinatean, euskal lurraldeak ongi mugaturik ez zeuden garaietan, Hondarribia, Hendaia, Irun, Errenteria, Oiartzun, Lezo eta Pasaia hartuz eta Donostiako ateetaraino iritsiz, «Oiarso» edo Oiartzun izeneko eskualde zabala ezagutzen zen. Lezo sortu gabarik zegoen oraindik eta gaur bereak diren lurraldeetan arrantzale eta baserritarren borda eta baserriak besterik ez ziren. Bestainbeste gaur irundar diren lurretan.

XII. mendean, 1150 eta 1154. urteen artean, gure lurralde hau Nafarroako Erreinuan sarturik, Antso Jakitun erregek, Donostiako foruak onartzerakoan, Oiarso haranari lur eremu haundia kendu zion donostiarrei emateko.

1203. urtean eta Gaztelako Alfontso VIII.ak emandako agiri berezi baten bidez, Hondarribiak, gaurko Irun, Lezo eta Pasai Donibane barruan zituelarik, bere bereizte osoa lortu zuen bere udal propioa antolatuz.

Ordutik Irunek, beti Hondarribiaren barruan, bere eremu propio eta bereiztua lortu zuen, errejidore bat eta bestelako legezko udal karguak lortuz. Lehen esan



dugunez, Hondarribiak 1203. urtean lortu zuen bere udala, baina hala eta guztiz ere muga franko oraindik ongi zehaztu gabe zituenez gero, oso istilu haundiak izan zituen Oiartzungo udalarekin, eta honela mugak ondo finkatu nahiean, 1470.ko abenduaren 21ean bildu egin ziren Andrearriaga deitutako lekuan bi udaletako ordezkariak; Eta dirudienez han egon ziren baita ere Irungo ordezkariak hondarribitarren artean.

Hala ere eta bilera hortan gauza haundi-rik konpondu ez zela ikusiz, 1556.ko otsai-laren 27an beste bilera bat antolatu zen helburu beraren atzetik: Hondarribia eta

Oiartzun arteko mugak ezartzea. Baina danok dakigu zer gertatzen den pape-raren gainean soil soilik ipinitako gauzekin, eta istiluak amaitzen ez zirenez gero, 1562. urtean Hondarribiako udalak mugarri berrien jartzeari ekin behar izan zion.

Piskanaka piskanaka Irunek, bere bereizketa osoaren atzetik zebilela, 1776. urtean bere udal propioa eraikitzeko ahalmena lortu egin zuen.

Beraz kontuan hartzen baldin badugu Frantzisko Gaintza 1658. urteko aza-roaren 7an jaioa dela gaur Lezo den Gaintzurizketako «Gaintza» eta «Endara» izenetako baserrian, ezin dezakegu baieztatu gure pertsonaia irundarra zenik, ezta lezotarra ere, garai hartan bai Irun eta bai Lezo Hondarribiako auzo hutsak bait ziren, eta ondorioz Gaintzakoa zer edo zer izatekotan hondarribitarra izango litzateke, garaiko agiri ofizialetan ondo frogatzen den bezala. Baina hala ere ukaezinak dira Frantzisko Gaintzak bere garaiko Irungo unibertsitatearekin izandako harreman hestruak.

Apaiza sarturik, Irungo Parrokiako erretorea izendatu zuten, eta hortik aurrera bertan aritu izan zen eskribau eta idazle bezala, bere fruitu nagusia 1738.ean Iruñean argitaratu zioten «Historia de Irun-Uranzu» lehen aipaturiko liburua izan zelarik.

Bere bizitzaren inguruko zenbait berri badaude, bere testamentua tartean dagoelarik, baina dakigunez bere zenbait eginkizun oso eztabidagarriak izan ziren, adibidez herentzi bat zela medio arrebak monja sar eraztearena.

Baina agian, Gaintzaren eztabaidagarriena bere liburua izan zen, beraren bitartez Irun-Uranzu aintzinatean Ptolomeo eta Mela geografariak seinalatutako «Iturisa» izeneko hiriska zela frogatu nahi bait zuen.

2.- BERE LIBURUARI BURUZKO ZENBAIT ZEHAZKIZUN

1738. urtean eta Iruñeko Martin Frantzisko Pikart inpresorearen bitartez, Irun herriari buruzko histori liburua kaleratu zuen bere izenburu osoa hauxe zelarik:


«Historia de la Universidad de Irun-Uranzu, probando con el Rmo. Euriditisimo Enao, ser el pueblo, que corresponde en Cantabria, al Antiguo lugar de ITURISA, señalado para marca por los geógrafos Ptolomeo y Mela a la posterioridad».

Ez da liburu makala, 255 orriz osaturik bait dago. Hasieran Gipuzkoako Diputazioari eskeinitako sarrera eta baimena ematen zuten eliz kargugizonen oharkizunak ikus daitezke eta gero 26 kapitulutan banaturik dagoen idazlana.

Bi lehenengo kapituluetan aintzinateko geografariak egindako deskripzio eta mapa okerrez luzatzen da eta oker hauen kausa nagusienetakotzat mapetan erabilitako markatze sistema seinalatzen du. Bi hurrengoetan etimologietaz eta zehazkiago euskal etimologietaz mintzatzen da, euskal izenetan azaltzen diren toponimi ezaugarriak ozenki azpimarratuz. Geroxeago garaiko teori iberistetan oinarriturik, Kantabria - Baskonia binomioaz aritzen da jator eta luze, ondoren 7. kapituluan Iturisa Irun dela defenditzeko dituen arrazoiak agertaraziz.

Bere teoretan oso ereduak haundia azaldu arren, bere garaian modan zeuden teori iberistetan erortzen da, era guztietako osagaiak erabiliz: tubalismoa, etimologi bitxi bezain ezinezkoak, Oiarso-Oleasori buruzko ideei ilunak,... Berarentzat oso garbi dago erromatar eta greko historiagileek aipatzen zuten Oiarso famatu hura Irun zela, eta hortarako oso ekilibrisimo zaila eta korapilatsuak eraiki zituen teori horren egiztasuna azaldu nahiean. Horrela Oiarson zegoen erromatarrek aipatutako ITURISA hiria, ITURRI-HOTZA euskal hitzetatik etorriko zen, eta beraz ITURIANZU izango litzateke (ITURRIAN - ZU), beti Gaintzaren teoriei jarraituz.

Denboraren poderioz ITURIANZU, URANZU bihurtuko zen, eta gero URANZUtik IRUN korruptela sortu. Ikusten dugunez, gure Frantzisko Gaintza ez zen historiagile tentela, azkarra eta eruditoa baizik, baina bere garaiko idazle guztiei gertatu zitzaien bezala, bere ere etimologi erraz eta burugabekoen erabilkeran erori zen, eta honela saiatu zen frogatzen bere teoriak, holako malabarismoen bitartez frogaezinezkoak suertatzen zirenak.



Lezo Zaharreko armarrica

Baina Frantzisko Gaintzak baditu ere oso aportazio baiezkorrak bere liburuan, 16. kapitulutik aurrera oso datu zehatzak eta fidagarriak ematen bait dizkigu Irungo historiaz, bai bere bizimodu zibilaz, bai bere lege eta eskubideez, eta baita urteetan zehar Irunen gertatutako zenbait ekintza eta egoera gerlariez ere. Beraz Irungo edota Oiarso-Bidasoa bailara zabaleko historian pittin bat sakondu nahi duenak, badu liburu hontan materiale zahar, jator eta atsegina.

KARLOX BARRENTSORO